

Duela gutxi igorri genuen Prebentzio eta antolaketa protokoloa, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan hezkuntza jarduera garatzekoa 2020-2021 ikasturtean, Nafarroako Foru Komunitatean.

Hartan jasotzen den esparru orokorra egokitu behar da ikastetxe bakoitzaren errealitatera, eta ikastetxe bakoitzak kontingentzia plan bat zehaztu behar du. Ikastetxeko zuzendaritzak eta haren titular den toki erakundeak prestatuko dute plan hori.

Gerta daiteke zalantzak eta ziurgabetasunak agertzea kontingentzia plana prestatzeko prozesuan. Horregatik, bide bat prestatu dugu horiei buruz galdetzeko eta zalantzak argitzeko.

Departamentuaren webgunean daude protokoloa eta maiz egiten diren galdera batzuk, hura prestatzeko lagungarri izan daitezkeenak.

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto>

Azken asteetan, behar ziren datuak eskatu dizkiegu haur eskoletako zuzendaritzeari, Educacian alta eman ahal izateko. Zuzendariaren profila beharrezkoa da, besteak beste, Educacian alta emateko ikastetxeetako hezitzaileei, horrela prestakuntza jardueretan izena eman ahal izan dezaten.

Profil horrek aukera ematen du, halaber, kontingentzia plana prestatzean sortzen diren zalantzak igortzeko, hain zuzen. Educa programan sartzean, "Oharra" izeneko lauki bat bistaratuko da, eta han agertuko da zein helbide elektronikotara igorri behar diren zalantzak. Horiek aztertu ondoan, erantzuna emanen da, ikastetxearen helbide elektronikora mezu bat bidaliz. Ohiko zalantza bat baldin bada, Hezkuntza Departamentuko webgunean sartuko da.

Educacian alta eman gabe egonez gero, edo arrazoi tekniko bat dela-eta ezin bada Educacian sartu, 0-3 urteko Zikloaren eta Landa Eskolen Atalaren helbide elektronikoa erabiltzen ahal da (seccion.0a3.escuelasrurales@navarra.es) zalantzak igortzeko. Guk mezua birbidaliko dugu horretarako gaitu den helbidera.

Bestalde, protokoloan ezartzen den bezala, ikastetxearen kontingentzia plana igorriko da Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzura eta 0-3 urteko Zikloaren eta Landa Eskolen Atalera. Badakigu denbora behar dela kontingentzia planaren prestaketak eskatzen duen




azterketa egiteko, prestatzeko eta neurriak zehazteko; hortaz, hura bidaltzeko muga egun bat jartzeak berekin ekar lezake hartzen diren neurriak ez izatea egokienak, ikusirik, halaber, zein denbora gutxirekin bidali den protokoloa.

Horregatik, ez dugu muga egunik jarriko plana bidaltzeko, baldin bermatzen bada ikasturtea hasi aurretik familiei eta ikastetxeko langileei jakinaraziko zaiela zer neurri hartuko diren jardura presentziala hasten denean. Hala ere, eskatu nahi dizuegu plan hori ahalik eta lasterren igortzeko.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 10ean

ANTOLAMENDU, PRESTAKUNTZA
ETA KALITATE ZERBITZUKO
ZUZENDARIA

0-3 URTEKO ZIKLOAREN ETA
LANDA ESKOLEN ATALEKO
BURUA


Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Departamento de Educación
Hezkuntza Departamentua
Sección de 0 a 3 y Escuelas Rurales
0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala

Pablo Arriazu Amat

Iraidia Salaverri Nieto